


Seinale misterioitsuak

Kaliforniako Astronomia Elkarteko kideek ezuste galanta hartu zuten iaz Lurretik kanpoko bizi adimentsuaren bila ari zirela. 60 metroko teleskopioaz baliatuz, espaziotik heltzen den seinale oro aztertzeari ekin zioten.

Izan ere, bizi estralurtarraren bila abiatuta, jatorri argirik ez duten seinaleak aurkitzea arrunt bilakatu da azken urteotan, astronomozaleek behin eta berriro salatu dutenez. Gero eta seinale gehiago jasotzen dituzte ikertzaileek eta horrek berebiziko nahaspila sortzen du. Beraz irakurle, pazientzia beharko duzu behaketak egin eta tajuzko emaitzak eskratu nahi badituzu.

Kaliforniako Astronomia Elkarteko kideek ezuste galanta hartu zuten iaz, egunero-egunero 2,3-2,4 gigahertz bitarteko seinale misterioitsuak jasotzen hasi ziren. Baina ikertzaileak gerora ohartu zirenez, seinale horiek ez zetozen urruneko galaxiaren batetik, beheko solairuko mikrouhinetik baizik.



Kontua da, teleskopio erraldoiarekin lanean buru-belarri ari zirela egunero-egunero 2,3-2,4 gigahertz bitarteko seinale misterioitsuak jasotzen hasi zirela. Ikertzaileak gerora ohartu zirenez, seinale horiek ez zetozen urruneko galaxiaren batetik, beheko solairuan bizilagunak pizten zuen mikrouhinetik baizik. Bitxikeri hutsa dirudien arren irakurle, gertakari horrek hainbaten lana erabat oztopa dezake.

Pentsamendua irakurtzen

Hala da bai; ikertzaile japoniarren lanari esker gure pentsamendua irakurri ahal izango ditugu. Ikertzaileek boluntarioaren buruari zenbait elektrodo itsasten dizkie eta entzefalogramak garuneko aktibitate elektrikoa jasotzen du. Ordenadoreari zenbait hitz progra-

matzen zaizkio eta bereak pantailan agertzen dira. Boluntarioak hitz horietako bat pentsatzen du eta garunak, estimulazioaren ondorioz, P300 izeneko uhinak igortzen ditu. Ordenadoreak bere pantailan agertu diren hitzetatik boluntarioak pentsatu duena hogeita bost segundoren buruan asmatuko du.

Teknika hori garunetik ateratzen diren nerbioetako gaitza dutenen komunikazio-ahalmena errazteko erabili nahi da. Begi-nini eta betazalen mugimenduaz baliatuz, ordenadore-pantailako hitzak aukeratzeko metodoa jadanik martxan da, baina inolako mugimendurik egiteko gauza ez denak ere komunikatu ahal izango du ordenadorearekin, modu sinplean bada ere. Japonian, Tottori-ko Unibertsitatean urtebetez egin dituzte probak sistema horrekin eta pare bat urtetan prest eduki nahi dute.

Bideoa eta telefonoa eskutik eskura

Ondoko irudian ikus dezakezuen aparatura aurki modaren azken punta izango da, Japonian bederen. Matchshita konpainiak jarri du merkatuan, baina oraingoz esperimentazio-fasean dago. Telefonoak bideo-sistema berria erabiltzen du eta horri esker, telefonoko



Argazkiko telefonoak bideo-sistema berria erabiltzen du eta horri esker, telefonoko hizketaldiaz gain, irudiak ere jaso ahal izango ditu.

hizketaldiaz gain, irudiak ere jaso ahal izango ditu. Hasiera batean, telefono-deia egiten duenaren irudia baino ez du jasoko aparatu berriak, baina etorkizunean, bideo-sistemaren erabilera arrunta, hots, grabazioa eta erreproduktzioa, egiterik izango omen du. Aparatu berria merkatuaratu aurretik, Japoniako telefono-sarean egin dira esperimentuak. Izan ere, bideodun telefonoak makina bat oztopo tekniko ekarri du. Batetik, bideo-sistemaren eta telefonoren miniaturizazioaren arazoa konpondu behar izan dute. Bestetik, datuak ulertzeko sistema berriak erabili behar izan dituzte, irudia eta audioa batera jasotzean nahasketak sor ez dadin. Izan ere, uhinen bidez garraiatzen den informazio-kopurua gero eta handiagoa da eta horrek zenbait kanal asetzeari eragin du.

